

EKINN+ SENDOTZEA ENPRESA EKIMEN BERRITZAILEAK HAZTEA, ESKALATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO PROGRAMA.

ATARIKOA

Donostia Sustapenak, Donostiako berrikuntza agentzia gisa, 2025ean sendotu egin du hiriko berrikuntzaren erreferentzia bilakatzeko apustua, bai eta lankidetzaren publiko-privatua, zerbitzuak pertsonalizatzean eta jakintzan intentsiboak diren sektoreetan oinarritutako eredu baten aldekoa ere.

Horrek esan nahi du pertsona, enpresa eta proiektu berritzaileei laguntzeko apustua egiten dela, zerbitzuak pertsonalizatzea eta kalitatea abiapuntu gisa hartuta. Foku estrategikoa, berriz, argia da: hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, berrikuntza publikoa eta ekintzaitza berritzailea indartzeko, eta, ondorioz, hiria *hub* berritzaile gisa proiektatzeko.

Testuinguru horretan, berrikuntza bultzatzea eta hiriko enpresa proiektu berritzaileak haztea da Donostia Sustapenak ezarritako lehentasunetako bat, hiriaren garapenerako oinarri gisa.

Gaur egun, Donostiak 15.400 enpresa baino gehiagoko enpresa parkea du; hau da, 81 enpresa 1.000 biztanleko. Hori horrela, Donostia da Espainian enpresa dentsitate handiena duen laugarren hiria,artzelona, Madril eta Valentziaren atzetik, eta beste hiriburu handi batzuen aurretik —Malaga, Sevilla edo Bilbo, kasurako—.

Donostiako enpresa parkearen bilakaerari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da jakintza intentsiboko enpresa zerbitzuak (KIBS) finkatu direla hiriaren motor ekonomiko gisa. Sektore horrek 6.300 establezimendu baino gehiago zituen 2024an, eta % 48ko ekarpena egin zion udal barne produktu gordinari. KIBSek gero eta garrantzi handiagoa izateak eta beste faktore batzuek ahalbidetu dute Donostiako ekintzaitza jardueraren tasak hazkunde jarraitua izatea 2018tik, eta 2024an lortu zuen historian berriki izaniko mailarik altuena: % 7,9.

Aldi berean, hiriko enpresa sarean enpresa txikiek jarraitzen dute nagusi izaten; izan ere, sare horretako % 71,9 langile bateko edo biko enpresak dira, eta % 91,3k, berriz, 1 eta 9 langile bitarte dituzte.

Besteak beste erronka horiei erantzuteko, Donostia Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzaitzaren aldeko apustu estrategikoa indartu zuen 2025ean, 6 milioi euroko zuzkidurarekin. Hala, 972 pertsonak (% 51,4 emakumeak eta % 45, berriz, 35 urtetik beherakoak) parte hartu dute ekintzaileei laguntzeko zerbitzuetan 2025ean. Babestutako 224 proiektu ekintzaile berrietatik, gutxi gorabehera erdiak oso berritzaileak dira (% 51),

eta horrek ederki erakusten du Donostia Sustapenak jakintzan eta biozientzietan intentsiboak diren zerbitzuen sektoreetarantz zuzenduriko estrategia.

2026an, Donostia Sustapenak hirian enpresa proiektu berriak sortzen laguntzearen alde egiten jarraitzen du, hazkunde ekonomikoaren eta tokiko enplegua sortzeko motor gisa.

Horretarako, EKINN+ programa du, enpresa proiektu berritzaileak eta *startup*ak azeleratzeko. Horrelako proiektuak eta *startup*ak azeleratzeko laguntzak aukera ugari ditu, ez bakarrik Donostia Sustapenaren aldetik, baita ekintzailatza ekosistema berritzailearen aldetik ere. Alabaina, aukera gutxiago izan ohi dira horren osteko hazkundearen eta eskalatzearen fasean: enpresaren bizitzako ziklo kritikoa da hori, non zailtasunak eta beharrak sortzen baitira finkatzeko eta lehenbiziko hazkundera edo eskalatzea lortzeko —eta, kasu batzuetan, egonkortzeko—.

Horregatik abiarazten da EKINN+ Sendotzea programa berri hau, azelerazio osteko faseetan dauden Donostiako enpresa berritzaileen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresen hazkundera eta jarraitutasuna bultzatzeko; xede hori lortzeko, eskalatzeko gaitasuna indartuko eta heriotza tasa murriztuko da, laguntza-programa aditu eta aurreratu baten bidez, faktore kritikoak ebaztera eta funtsezko erabaki estrategikoak hartzera bideratuta.

1. HELBURUA

EKINN+ Sendotzea programaren helburua da azelerazio ondoko faseetan dauden Donostiako enpresa berritzaileen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresen hazkundera eta jarraitutasuna bultzatzea (hau da, egonkortzea), lehenbiziko hazkunde edo eskalatze gaitasuna indartuz eta heriotza murriztuz, guztia ere laguntza-programa aditu eta aurreratu baten bidez, faktore kritikoak ebaztera eta funtsezko erabaki estrategikoak hartzerantz bideratuta.

Hauek dira EKINN+ Sendotzea programaren helburu nagusiak:

- A. Enpresa teknologikoen eta/edo berritzaileen lehen hazkunde eta eskalatze fasea bizkortzea**, *scale up* estadioetara arrakastaz igarotzen diren enpresen kopurua handitzeko eta epe ertainera duten lehiakortasuna indartzeko.
- B. Oinarri teknologikoko enpresen eta/edo enpresa berritzaileen egonkortze fasea hobetzea**, kalteberatasun nabarmenak (finantzarioak, operatiboak, estrategikoak edo merkatukoak) dituzten enpresetan behar bezain goiz esku hartuz, ixteko arriskua murrizteko, erresilientzia hobetzeko eta merkatuan jarraitzen dutela ziurtatzeko.

EKINN+ Sendotzea programa **early stage** etaparen azken fasean dauden oinarri teknologiko edo zientifikoko *startup* berritzaileei zuzenduta dago, betiere hasierako trankzioa eta **product-market fit emergente** baten seinale argiak badituzte.

EKINN+ Sendotzea programak elementu hauek biltzen ditu:

- 1) **EKINN+ Sendotzea aholkularitza eta laguntza**: laguntza aurreratua eta erabaki estrategikoak hartzerantz bideratua ziurgabetasun eta hazkunde testuinguruetan.
- 2) **Lan eremuetarako sarbidea**: Donostia Sustapenaren eraikinetan eta enpresa zentroetan.
- 3) **Elkargi abal funtserako sarbidea**
- 4) **EKINN komunitatean sartzea**
- 5) **Donostia Sustapeneko proiektu berritzaileentzako beste laguntza batzuk lehentasunez eskuratzea** deialdiaren urtean: EKINN Talent, Estrategia eta Bonu teknologikoak.

Donostia Sustapenak gehienez 5 *startup* artatuko ditu EKINN+ Sendotzea programa honetan.

2. PARTE HARTZAILEEN BALDINTZAK

EKINN+ Sendotzea programa **early stage** etaparen azken fasean dauden oinarri teknologiko edo zientifikoko *startup* berritzaileei zuzenduta dago, betiere hasierako trankzioa eta **product-market fit emergente** baten seinale argiak badituzte, fakturazio frogagarriarekin.

Etaparen horretan, enpresek gaintitu dute baliozkotze teknikoaren edo kontzeptualaren fasea, eta beren negozio eredua sendotu behar dute, beren eragiketarako eskalatu edo, kasu batzuetan, bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa edo estrategikoa berreskuratu.

Sartzeko baldintza komunak

- Egoitza fiskala edo lantokia** Donostian.
- EKINN+** enpresa izatea iraganean.
- Enpresa **berritzaile eta eskalagarri** bat izatea:
 - Sortu berriak diren edo antzintasun mugatua duten *startup*ak, independenteak, kotizatu gabeak eta irabaziak nagusiki berrikuntzan berrinbertitzen dituztenak.
 - Negozio eredu berritzailea eta eskalagarria duten *startup*ak, osagai teknologiko edo digital handiko sektoreetan jarduten dutenak.
 - Enpresa berritzaile eskalagarri gisa egiazta daitezkeen *startup*ak irizpide hauetan oinarritu daitezke: I+Gko inbertsioa, berrikuntza teknologikoko gradua, kanpoko baliozkotzeak, jabetza intelektuala edo berritzaile gisa aitortutako sektoreetako kide izatea.
- Gutxienez 12 hilabeteko antzintasuna** izatea, benetan eratzten denetik edo jardunean hasten denetik.
- Gehienez 7 urteko antzintasuna izatea** (10 urtera arte luza daiteke deeptech, industria eta bioteknologiako *startup*en kasuan).
- Gutxienez **TRL 6–7** lortu izana, hau da, ingurune garrantzitsuan baliozkotutako prototipo funtzionala edukitzea, eta, kasu gehienetan, baita proba pilotuak edo benetako lehen eragiketarako ere. Salbuespen gisa, parte hartu ahal izango dute TRL txikiagoa duten deeptech proiektuek.
- Talde sustatzaile aktibo bat izatea**, dedikazio errealarekin eta egikaritzako gaitasunarekin.
- Sozietate egitura formalizatu eta operatiboa** izatea.

- Merkatuan jada baliozkotutako produktua/zerbitzua duten *startupak***, lehen salmentetan edo merkataritza akordioak abian dituztenak eta beren negozio eredua eskalatzeko egitura operatiboa eta estrategikoa indartu behar dutenak.
 - Merkaturatutako produktua edo merkaturatze fasean dagoena.
 - Lehen sarrerak, ordaindutako pilotuak edo bezero aktiboak.
 - Pipeline* komertziala edo martxan dagoen salmenta kanala.
 - Baliozkotutako negozio eredua duena edo baliozkotze prozesu aurreratuan dagoena.
 - Talde konprometitua eta egikaritzeko gaitasuna duena.
 - Eskalatzeko, inbertsioa erakartzeko edo merkaturatzea indartzeko behar zehatza.

Egonkortze lerroaren kasuan, kasu hauek onartuko dira:

- Ibilbide berritzailea, talde aktiboa eta oinarri teknologiko baliozkoa duten *startupak*, baina, koiunturalki, egonkortze egoera bat dutenak eta horrek finantza desoreka, diru sarreren jaitsiera, estrategikoki lerrotatuta egoteari uztea edo egitura falta eragitea.
- Bideragarritasun berreskuragarria eta bideragarria izan dezaketen *startupak*.

3. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK ETA FUNTZIONAMENDUA

EKINN + Sendotzea programa laguntza aurreratuko tresna integral gisa aurkezten da, **hazkunde testuinguruetan erabaki estrategikoak hartzera bideratuta.**

Hona hemen programaren edukia:

1. **EKINN+ Sendotzea barneko aholkularitza eta laguntza**, bi fasetan, eta erabaki estrategikoak hartzera bideratuta:
 - **Fase intentsiboa:** 5 hilabete inguruko iraupena.
 - **Jarraipen fasea:** hilabeteko iraupena, gutxi gorabehera

Zerbitzu hauek eskainiko dira fase horietan:

- Laguntza aditua, erabaki kritiko hauek hartzeko:
 - Inbertsio pribatua: *seed, early stage A* saileko errondak.
 - Finantzaketa publikoa eta pribatua.
 - Nazioko eta nazioarteko merkaturatzea, merkaturatzea eta bezeroekiko interakzioa.
 - Bideragarritasuna eta berregituraketa.
- Aldizkako kontsulta teknikoak.
- Bilakaeraren azterketa eta doikuntza proposamenak.

2. Lan espazioetarako sarbidea

EKINN+ Sendotzea programaren onuradunek lan egiteko espazioak eskatu ahal izango dituzte, bai lanpostu indibidual batekin Donostiako Sustapeneko *coworkingean*, bai bulego propio batekin Donostia Sustapeneko enpresa zentroetako batean. Kontzeptu hori emateko, espazioak erabilgarri egon beharko du eskaera egiten den unean.

Donostia Sustapeneko enpresa zentroetako batean bulego propio bat izanez gero, hobari bat aplikatuko zaio kostu errearen gainean, zeina urtebetez mantenduko baita gutxienez. Espazio motaren, iraupenaren, beharren eta erabilgarritasunaren arabera definituko da hobari hori. Kontsumo gastuak indibidualak izango dira, eta ez zaie aplikatuko hobaririk. Era berean, indarrean dagoen araudi bera aplikatuko da espazio komunak eta beste espazio batzuk erabiltzeari dagokionez.

Eskuragarri dauden espazioak baino gehiago eskatuz gero, eskabide ordenaren arabera esleituko dira.

3. Elkargi abal funtserako sarbidea

Donostia Sustapenak finantzaketa behar duten proiektuak aurkeztu ahal izango dizkio Elkargiri, sinaturiko hitzarmenaren esparruan.

Donostia Sustapenak laguntza eskainiko du abalen bidezko finantzaketa behar duten proiektuetarako eragiketak aurkezten. Elkargik ontzat ematen dituen eragiketek baliatu ahal izango dituzte Donostia Sustapenak elkarrekiko berme erakunde horrekin proiektu berritzaileak finantzatzeko sinaturiko lankidetzak hitzarmenean jasotako baldintzak.

4. EKINN komunitatean sartzea

Onuradunak EKINN komunitateko kide bihurtuko dira. Komunitate horretan, gai berriak ezagutzeaz gainera, proiektuak hazteko informazio interesgarria eskuratuko dute, bai eta proiektuak bistartzeko, egitasmoak lankidetzan sortzeko eta *networkinga* aberasteko ere.

5. Donostia Sustapeneko proiektu berritzaileentzako beste laguntza batzuk lehentasunez eskuratzea

Programa honen onuradun diren proiektuek lehentasunezko baldintzak izango dituzte deialdiaren urtean proiektu berritzaileei zuzendutako laguntzetarako: EKINN Talent kontrataziorako laguntzak, gastu estrategikoetarako estrategia eta transferentzia teknologikorako bonu teknologikoak, lehentasunez eskuratzeko bidearekin.

Nolanahi ere, onuradun izateko baldintzak bete beharko dituzte, bai eta laguntzei dagozkien oinarri arautzailetan ezarritakoak ere. Era berean, laguntza horiek epe barruan eta behar bezala eskatu beharko dituzte.

4. PROGRAMA HONETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK FORMALIZATZEA

Eskaerak aurkezteko epea **2026ko Uztailaren 31n bukatuko da.**

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta orrialde guztietan behar bezala sinatuta egon beharko dute. Sinadura behar duten agiriak elektronikoki sinatuta joango dira.

Edozein informazio edo kontsulta egiteko, 943 482 800 telefono zenbakira dei daiteke, edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatzi, honako gai hau adieraziz: **“EKINN+ Sendotzea Programa”**

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Deskribapen memoria teknikoa eta ekonomikoa («Memoria teknikoa» eranskina), informazio honekin:

1. Eskatzailearen identifikazio datuak eta datu orokorrak, eta, hala dagokionean, sozietatearenak: IFK, eratze data, kapital soziala...
2. Proiektuaren izenburua.
3. Enpresaren egungo egoera eta parte hartzearen justifikazioa
 - a) Ibilbidea eta aurretik zer programatan parte hartu duen
 - b) Produktuaren/teknologiaren/prozesuaren dimentsioa
 - c) Merkatuaren dimentsioa eta negozio eredua
 - d) Ekonomia, finantza eta lege dimentsioa
4. Sendotze prozesuaren erronka nagusia
5. Eskalagarritasuna eta nazioartekotzea
6. Lehentasunezko jarduketa plana eta kronograma
 - a) Laguntzeko esperotako modua
 - b) Lehentasunezko eremu funtzionalak
 - c) Mugarriak eta zenbatetsitako kronograma
7. Talde sustatzailea eta egikaritzeko gaitasuna
8. Bideragarritasun tekniko, komertzial eta ekonomiko-finantzarioaren laburpena
9. Inpaktu potentziala eta lerrokadura estrategikoa

Memoria teknikoak argi eta garbi deskribatu behar du enpresaren egungo egoera, bai eta finkatzeko edo eskalatzeko proiektua ere. Zehatz-mehatz eta ebidentziara bideratuta idatziko da, orokortasunak saihestuta. Gomendatutako gehieneko luzera 10 orrikoa da. Ebaluazio taldeak bereziki balioetsiko du deskribatutako egoeraren, identifikatutako hazkunde palanken eta proposatutako jarduera planaren arteko koherentzia.

Geroko fase batean, proiektua hautatuz gero, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

Administrazio agiriak:

- **Datuen eranskina**
- Pertsona fisikoa izanez gero, **eskatzailearen NANA**.
- Pertsona juridikoa izanez gero, **eskatzailearen IFKren kopia**, eta, hala egokituz gero, ahdunaren NANA.

Onuradunak erabat hartzen du bere gain egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasuna, baita aurkeztutako gainerako dokumentazioarena ere.

Interesdunek dokumentu horietakoren bat aurkeztu badute Donostia Sustapenaren laguntza programaren batean parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatutako dokumentazioa berriz aurkeztea, betiere datuek indarrean jarraitzen badute eta ez badute izan aldaketarik.

Gainera, dokumentazio tekniko hau eskatu ahal izango da:

- **Egoera balantzea**
- **Galdu-irabazien kontua**
- **Amaitutako azken ekitaldiari dagozkion baturen eta saldoen balantzea**
- **Ahalik eta aurrerakin eguneratuen.**

5. ESKAERETAKO HUTSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia berrikusi ondoren, egiaztatzen bada ez dagoela osorik edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari **HAMAR (10) egun balioduneko epea** emango zaio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, baztertu egingo dela eskaera bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horren araberrako ebazpena emango dela. Posible izango da administrazio agiriak zuzentzea, baita laguntza honekin loturiko agiri espezifikoak ere. Donostia Sustapenak proiektuaren memoriari buruzko argibideak eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo.

Zuzenketak posta elektronikoz jakinaraziko dira (onuradunak harremanetarako ematen duen helbide elektronikoa). (JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Dena den, web aplikazioan ere egongo dira eskuragarri jakinarazpenak, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Zuzenarazitako agiriak aurkezteko, hasierako eskakizuna egiteko erabili zen kanal berbera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Programa honetan parte hartzea onartzeko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak berariazko ebazpena emango du, zeina posta elektronikoz jakinaraziko baita. Jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, dagokion espedientearen barruan.

6. ESKABIDEAK BALIOESTEA ETA FORMALIZATZEA

Eskaerak norgehiagoka bidez ebatziko eta baloratuko dira. Norghegiagoka bermatzeko, proiektuaren memoria teknikoa eta ekonomikoa agiri baliozkotzat jotzen da proposamenak ebaluatzeko.

Kanpo adituek ebaluatuko dituzte eskaerak, eta, gainera, deialdi honen aplikazioan sortzen diren gai guztiak ebatzi eta interpretatu ahal izango dituzte.

Honela baloratuko dira aurkeztutako eskabide guztiak:

1. Ebaluatu ahal izateko gutxieneko baldintza tekniko-administratiboak egiaztatzea.
2. Banakako ebaluazio teknikoa, irizpide hauei buruzkoa: proiektuaren bideragarritasuna, egikaritzeko egingarritasuna, inpaktu potentziala, lerrokatzea eta konpromisoa, eta egungo egoera eta esku hartzeko beharra.

Donostia Sustapenak elkarrizketa bat eskatu ahal du, batetik, proiektua eta talde sustatzailea zehatzago ezagutzeko, eta, bestetik, proiektuak adierazitako irizpideen arabera lortu duen hasierako balorazioa alderatzeko.

Proiektuak balorazio irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

1. Proiektuaren bideragarritasuna: proiektuak programaren laguntza amaitu ondoren heltzeko, mantentzeko eta modu autonomoan hazteko duen gaitasuna, betiere oinarri sendoa erakutsita.	30 puntu
--	----------

<p>2. Egikaritzeko egingarritasuna: taldeak sendotze, berreskuratze edo eskalatzeko prozesua gauzatzeko duen gaitasuna, bai eta bere esperientzia eta konpromisoa ere.</p>	30 puntu
<p>3. Inpaktu estrategikoa eta politika publikoekin lerrokatzea proiektuak tokiko ekosistemari egiten dion ekarpena, eskalagarritasun potentziala, eta programaren helburu eta balioekin eta inguruko politika publikoekin duen sintonia.</p>	20 puntu
<p>4. Esku hartzeko beharra eta aukera aldaketa garrantzitsu bat sortzeko premia eta programak horretarako eskaintzen duen aukera, EKINN+ Sendotzea programaren laguntza proiekturako eraldatzailea izango dela ziurtatuz.</p>	20 puntu
<p>PUNTUAZIOA GUZTIRA</p>	100 puntu

Eskaera bat hautatu ahal izateko gutxienez 65 puntu lortu beharko dira; beraz, kanpoan geratuko dira gutxienero puntuazioa baino txikiagoa lortzen duten proiektuak.

Donostia Sustapena harremanetan ipini ahal izango da gutxienero puntuazio hori gainditzen ez duten baina 50 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuetako eskatzaileekin, proiektua behar bezala ulertu dela egiaztatzeko.

Ontzat emandako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira, eta deialdi honetarako ezarritako proiektuen mugarekin esleituiko dira.

Berdinketa gertatuz gero bi eskaera edo gehiagoren artean, 1. ebaluazio irizpidean puntuaziorik handiena dutenei emango zaie lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, 4. ebaluazio irizpidean puntuazio handiena duena. Berdinketak jarraitzen badu, 2. ebaluazio irizpidearen arabera lehenetsiko da, eta, orduan ere berdinketak jarraitzen badu, 3. ebaluazio irizpidearen arabera lehenetsiko da. Berdinketak jarraitzen badu, eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera lehenetsiko da.

Behin-behineko lehen ebazpena aurkeztuko da, eta 10 egun baliodun izango dira alegazioak aurkezteko. Epe hori igarotzen denean —eta alegazioak aztertu ondoren, halakorik balego—, behin betiko ebazpen proposamena egingo da.

Eskabideak hautatzean, puntuazioaren arabera ordenatutako erreserba zerrenda bat eratu ahal izango da, onartutako erakunderen batek parte hartzeari uko eginez gero, Donostia Sustapenak aukeran izan dezan zerrenda horretan dagoen hurrengo eskatzailearen parte hartzea ontzat ematea, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Donostia Sustapenak eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango du informazio

gehiago behar izanez gero edo pertsona ezagutu nahi izanez gero.

Donostia Sustapenak berriazko ebazpen bidez onartuko edo ukatuko du programa honetan parte hartzeko aukera. Programan parte hartzea onartzeko ebazpena ez emateak ez du esan nahi programan parte hartuko denik.

Eskaera ebatzi eta balorazio fasea gainditu ondoren, programari ekingo zaio.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabidearen eranskinean emandako helbide elektronikora (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, dagokion espedientearen barruan.

7. ONURADUNEN BETEBEHAR OROKORRAK

Programa honen onuradunek beren gain hartuko dituzte oinarri hauetan jasotako betebeharrak, eta berriaz aplikagarritzat joko dira ondorio horietarako, betebeharrak erreferentzia ginez (nahiz eta horietara bakarrik mugatu ez):

- a) Donostia Sustapenak deitzen dituen bileretara joatea, programa honen xede diren proiektuen jarraipena eta bilakaera egiteko.
- b) Programa honi loturik Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
- c) Aurkeztutako proiektuaren baldintzak errespetatzea eta betetzea, Donostia Sustapenak berriazko baimena eman ezean.
- d) Donostia Sustapenak eskatutako datu estatistikoak betetzea, eta, zehazki, programa honetan parte hartzen duten pertsonen mikrodatuei buruzkoak.
- e) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
- f) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- g) Egunean edukitzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- h) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu baldin bada, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
- i) Emandako laguntzei buruz Donostia Sustapenak bere eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia jakinaraztea.
- j) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
- k) Donostia Sustapena aipatzea laguntza hauen xede diren proiektuak sustatzeko eta hedatzeko jardueretan, eta, horretarako, haren irudi instituzionala eta legenda sartzea egiten diren komunikazio euskarrietan (web orria, kartelak, mailingak, eta abar). Aipatu egin behar da EGfren "Ekinn Harrera" egitasmoa, programa honen bidez jasotako tutoretza sustatzeko.
- l) Programa honen xede den proiektuan aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein egoera gertatuz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
- m) Donostia Sustapenari jakinaraztea EKINN+ Sendotzea programaren barruan



proiektuak helburu berarekin beste tutoretzat programa batean parte hartzea erabakitzen duen, bai eta eskaera egiten den unean EKINN+ Sendotzea programan parte hartzen ari den ere.

- n) Donostia Sustapenari laguntzea, beharrezkoa izanez gero, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta haren esku ipintzea eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia.
- o) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- p) Onuradunak enpresekiko eta I+G+Bko eragileekiko hartu-eman ekonomikoetan baliatzen dituen harremanetarako datuak, jarduera, merkataritza izena, logoa, marka eta bestelako zernahi bereizgarri baliatzeko baimena ematea Donostia Sustapenari, azken horrek enpresen direktorio digitaletan bildu ditzan. Horretarako, onuradunak elementu horiek ustiatzeko lizentzia bat emango dio Donostia Sustapenari, zeinak adierazitako xedeetarako bakarrik baliatuko baitu, erabilera baketsua bermatuz.
- q) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia, eta abar), sustapen eta hedapen materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.

Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko hilean), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.

<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>

8. BATERAKO FINANTZAKETA

Programa hau Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatuko da, % 40an, EGF+ Euskadi 2021-2027 Programaren esparruan, "EKINN HARRERA" programarako.

9. DATUEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da Donostiako Udalak tratatuko dituela ematen dizkiguzun datu pertsonalak, tratamenduaren arduradun gisa, eta kudeatu, berriz, Donostiako Sustapena SAK kudeatuko du informazioa, tratamendu-eragile gisa.

Laguntza eskaera izapidetzea eta kudeatzea da tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren zilegitasun oinarria Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua da; halaber, tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde gauzatutako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena;

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

Ez dago aurreikusita datu jakinarazpen gehiago egitea hirugarrenei, legeak hala agindu ezean, eta ez dago aurreikusita, era berean, datuen nazioarteko transferentziarik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak biltzeko garaian kontuan harturiko helburua betetze jarraitzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denbora guztian gordeko dira. Artxiboak eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Ukituriko pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin ipini beharko da harremanetan (Easo 41, 20006 Donostia).

Zure eskubideak baliatzeko garaian ez badizute behar bezala erantzun, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldeztu aurretik eta aukeran, harremanetan jarri ahal izango zara Datuak Babesteko Donostiako Udaleko ordezkariarekin: dbo@donostia.eus.

10. FORUA ETA AUZIAK EBAZTEA

Edozein eztabaida, gatazka edo desadostasun sortzen bada, gatazkak ebazteko auzibidetik kanpoko bidea agortzen denean eta bidezko errekurso eta erreklamazioak aurkezten direnean, bi aldeak Donostiako epaitegi eta auzitegiek erabakitzen dutenaren mende jarriko dira.

Donostian, sinaduran ageri den egunean.

Iñigo Olaizola

Donostiako Sustapena SAko zuzendari gerentea

